Lan deialdia: Nafarroako Bertsozale Elkarteko irakaslea

Nafarroako Bertsozale Elkarteak **bertsolaritza irakasle** bat behar du, Nafarroako zonalde ezberdinetan Hezkuntza Arautuko taldeetan saioak emateko. Curriculum Vitaeak eta motibazio gutunak aurkezteko epea: 2026ko abenduaren 1a, asteartea (14:00ak arte).

Eskaintzen da:

- %80ko jardunaldiko kontratua. Ordutegi moldagarria.
- 2026ko urtarrilaren 15ean hasteko.

Eginkizun nagusiak:

Nafarroako Bertsozale Elkartearen Hezkuntza Arautuko proiektua urtarriletik ekainera bitarte, nafarroako zonalde ezberdinetako 10 ikastetxe ezberdinetan garatzeko irakasle baten bila ari gara, %80ko lanaldian. Hauek dira langilearen funtzio nagusiak:

- Hezkuntza Arautuko *Eskolan bertsotan* programa ematea 10 ikastetxean. Talde bakoitzean, oro har, 17 saioko programa aurreikusten da.

Eskatzen da:

- Unibertsitateko lizentziatura, diplomatura, gradu edo Goi Mailako Heziketa Ziklo titulua izatea.
- Bertsogintzan eskarmentua izatea; bertsolaritza eta euskal kultura ongi ezagutzea.
- Euskara maila altua izatea (EGA titulua edo balioduna).
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.

Baloratuko da:

- Haur eta gazteekin didaktika alorrean aritu izana.
- Bertsozale Elkartearen proiektuaren eta jardunaren ezagutza.
- Izaera planifikatua, ordenatua, ekintzailea eta dinamikoa izatea.

Interesa duenak **Curriculum Vitae-a** eta **motibazio gutunak** bidali behar ditu Nafarroako Bertsozale Elkartera (nafarroa@bertsozale.eus), **2026ko abenduaren 1era bitarteko epean (14:00ak arte)**. Informazio gehiago behar izanez gero, idatzi mezu bat helbide horretara edota deitu: (+34) 691 26 18 96.